

- **Kultura:** ZZ Band eta Laket asteburuan San Andresetan
- **Zer berri:** Ume eta menpekoeen zaintzaile gehienak emakumeak dira

soraluzeko
hamabostekaria **268.** alea
2012ko uztailaren 6an

@pil-pilean

Edurne Unamuno
Kirolaren gurpilari
eraginez



Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

**IÑIGO URIBETXEERRIA****IRATI TREBIÑO**

EGUNGO HEZIKETAREN HELBURU ILUNA

Itepele Irati... zelan gabilta? udara heldu zaigula eta laprobetxatu egin beharko degu, nahi baino azkarrago aldeiten baitu.

Oingo honetan hezkuntza mundua jarri nahiko nuke hankaz gora.

Jakinekoea da munduan hamaika zibilizazio eta tribu ezberdin izan direla, eta oraindik ere kultura desberdindun taldeak ugari direla. Baina historian zehar kolonizatzaileek beren ohiturak ezarri dituzte iritsi diren leku guztietan. Bai janzeran, hizkuntzan, kulturen. Azken finean, guztian. Iritsi berrien legeak onartu behar izan dituzte menperatuek, eta besteak beste, beren hezkuntza sistemara egokitu beraien heziketa moduak ahazteraino.

Gure ustez “lehen munduan” dugun hezkuntza sistema da hezkuntza egokia eta bakarra, ez dago zalantzarik. Hau da behar duguna. Aipatu beharra dago baita irakasleak izan duen aldaketa onerako izan dela. Iraganean bortitzak ziren irakasleak gaur egun guaiak, enroilatuak izatera pasa dira. Baina badu hezkuntza sistemaz aharra ketagaurengunak oinarritzok parekidetasun garrantzitsu bat: denak berdinduraitzea dute helburu.

Pentsatzen jarraituz, bi hezkuntza mota ditugula ondorioztatu dut. Batetik aberatsena. Eskola pribatu garestiak eta unibertsitate famatuak oinarritzen den hezkuntza. Epaile, bankero, enpresari, edo politikoministroak sortzeko. Bestetik langileon eskolak. Goiko sektore horrek jarritako gaiak irakasten dituztenak. Eta batik bat, bakoitza berelantpostuan ixilik egoten, aho-tsik ez altxatzen, urteroko errenta ordaintzen eta gure harruek heziketa sistema horretatik ez ateratzen oinarritzen den hezkuntza.

Ez dakit Irati. Nik uste gure seme-alabek beste zerbaitek ere merezi dutela, ez iruditzen?

“Guretzat “lehen munduan” dugun hezkuntza sistema da egokia eta bakarra”

Iñigo Urribetxeberria

“Ezin gorpil zoro honi irtenbiderik aurkitu”

Irati Trebiño

Aupa Iñigo! Noski baietz, gure seme-alabek onena merezi dute, beste guztien seme-alabek bezala. Eta guk ere merezi dugu onena. Onena zer den definitzeko orduan etortzen dira baina arazoak eta gaizki ulertuak. Imajina daitekeen mundurik onenean bizi ga-

rela diote batzuk, eta gainera, gu, Europa aberats eta oparoaren seme-alabak gara. Esne bitsetan haziak, nire aittittaren esanetan. Ez dut bere esana zalantzan jarriko, asko dakite eta aittittek, baina gure izanak zalantza bat baino gehiago sortzen dizkit.

Gorputza gogortu eta arima petraltzen diguten lanetan ematen dugu bizitzaren gehiengoa, beharrezkotzat ditugun produktu gehiago kontsumitu ahal izateko, benetan kontsumitzen zaiguna, zigarrokina kontsumitzen den bezala, gure biz-

itzita dela ohartu gabe. Zorrez, lanez eta atsekabez elikatuak, etsai dugu lagun-hurkoa, eta bakarrik, oso bakarrik gaude arrotz zaigun munduaren aurrean. Eta sokak zintzurra estutzen digula nabaritu arren, ezin gorpil zoro honi irtenbiderik aurkitu; zorraz ordaintzeko lan egin behar, lanera joateko umeak eskolan utzi behar, maite ditugunak gertu ez dauzkagunez, maitasun eta zoriontasuna erosi nahi, gorpilari abiadura handiago emateko.

Guztion betebeharra litzateke gorpil zoro honi ihes egitea. Ez dakit, moralaz, etikaz, barruko arraz edo nire tripako minez ari naizen. Ze niri, tripako minek

asko hitz egiten didate eta zera oihukatzen dute: guk, bizkarra ondo babestua daukagun klaseertaineko Europar arruntaren seme-alabok, esne bitsetan hazitako umeok, beste askok baino errazago daukagula. Goazen gauzak aldatzera.

Goguan hartzeko

“Euskara debekatua, zentsuratutako testu liburuak, murrizketak eta inposizioak dira egungo hezkuntza sistemetatik datozkigun kakak”

Sortzen Ikasbatuaz Elkartea



GUTUNAK

**Europak
Espainia
esku-hartuta,
Foru Aldundiak
Soraluzeko
Udala**

Ekainaren 20an izan genuen ez ohiko plenoan bi gai ekonomiko garrantzitsu onartu genituen. Lehen 2012-2015 ekonomia eta finantza plana. Zertan datza plan hau? Aurreko artikuluko batean adierazi genuen 2011ko aurrekontuaren itxiera negatiboa izan zela. Konkretuki -34.000 eurokoa. Hau horrela izanda, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Soraluzeko Udala behartzen du plan ekonomiko finantzario bat onartzera. Hau da, 2015 urtera bitartean, urtetik urtera udalak izango dituen sarrera eta gastuen aurreikuspena aurkeztera. Zer suposatzen du honek? Aldundiak, udal kontuen gaineko tutela ekonomikoa egikaritzen duela. Pairatzen dugun egoera ekonomiko delikatuaren adibide garbia dugu eskuhatze hau. Bestalde, bigarren puntua 68.000 euroko kredi-

tu eragiketaren onarpena izan zen. Zertarako? Soraluzeko Udalak 285.000 euro bueltatu behar dizkio Foru Aldundiari, Foru Funttsaren kontzeptuagatik. Itzulera 2012 urtean burutu behar da eta kontutuan edukita pairatzen dugun egoera ekonomikoa ez daukagu dirurik guztia bueltatzeko. Ondorioz, 68.000 euroko kreditua eskatu behar dugu, honek suposatzen duen interes ordainketarekin. Gogor salatzen dugu, Foru Aldundian BILDUK erakutsi duen jarraira udalekiko. Ito arte estutzen baititu udalak. Azkenik, hedabideetan entzuten dugu Europak Espainia esku-hartuta duela, ildo beretik esan dezakegu Foru Aldundiak berdina egin duela Soraluzeko Udalarekin. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitze gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, "herriko jubilatutako batzuk" edo "auzokide batzuk" edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **bel-tzezkorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen egardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

Pil-Pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonia:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



bittartetik



Jokin Azpiazu
Guniak betez

Pasa dan astian, ekainan 28-xan, lesbiana, gay eta trans pertsonon askapen eguna ospatu genduan, Plaentxian be. Plaza Barrixan elkartu ginan pankartian atzian, baita gazetxian luntxa jan ta zineman pelikulia ikusi be. Gune ezberdin honek bete genduazen adin, itxura, kolore ta zapore danetako jendiaz.

Zinian Komite Arroxa aurkeztu zeban hurrengo urteko ekimena be, "Zinema Arroxa" deittu dabena, norabide horretan doia: urte osuan zihar, sexualitatziaz, gure aukeretaz, gure nortasunetaz ikusi, ikasi, berba ta entzun egin ahal izateko gune bat eskaintzia, pelikulak aitzaki moduan hartuta. Diñue aldarrikapen gunia izatiaz gain, topo egitteko gunia be izatia nahi dabela, herrixan be erreferentzia txiki bat izateko patriarkatuak agindutako sexualitate estu ta mugiezinian nola edo hala kabitzen ez garanok.

Herrixan guniak betetzia, irabazia, pozgarria da. Ta pozgarria izatiaz gain biharrezkua be bada. Gune horrek betez, erreferentzia ezberdinak sortuz, gure herrixa bere aniztasunian erakutsiz, lortzen dogu arrainak bizitzeko bihar dabenera: askatasuna.

Arkaitz Arana - Arizaga, erronka botata dago San Andresetarako

Soraluzen bizi den zeanuriar honek ilusioz jaso zuen Arizaga-ko Jose Ramonek botatako erronka: motozerrarekin ehun enbor mozketa zeinek lehenago egin. Gogoz daude biak. Aranak trontzan txapelak lortu ditu Bizkaiko txapelketetan. Berarekin egin dugu elkarriketa.

Herri kirolenganako afizina nundik datorkizu?

Gaztia nintzanian, 13 urtekin, auzotarren arteko lehiak egitten ziran Zeanurin. Auzoko nagusixerri begiratzuz, basarriko erramintta zaharrekin jolasten hasi eta poliki-poliki herri kirolen mundua ezagutu neban. Ordutik mendian hartu nabe herri kirolak.

Trontzan abilezia berezixa daukazula badakit.

Jardundakua naiz, urte asko emon dittut trontzan lehiatzen. Bizkaiko txapelketan hamazortzi aldiz hartu dot parte eta zazpi txapel lortu dittut.

Motozerria be astintzen dozu.

Erakusketetan enborreri animalixen formak emoten dotseraz baina altzarixak edo bestelako irudixak be moztu izan dittut. Behin Gorbeiaiko kurutzia eskalara moztu genduan eta bost metroko gurutze erraldoia izan zan azken emaitza. Hau izan da egindako lanik gogorrena, polittena baita, baina berriz egingo ez neukena.

Abilezia berezixa bihar da hola-ko lanak egitteko?

Tresneria onik bare zaila emaitza onak lortzia. Irudixak disei-



Arkaitz eta Jose Ramon, domekan lehiatuko dira motozerrarekin.

natzeko egurra moztzen trebia izan bihar da. Motozerrak pisu haundia dauka eta indarra eukitzia be eskatzen dau.

Egindako ibilbidian zer emon dotsu herri kirolak?

Nere izaeran eta nortasunan parte dira. Maitte dot neure burua horretan dihardudanian eta maitte dot ingurukuak hontara xaxatzia.

Irakasle lanetan zein jarrera ikusi dozu gaztien artian?

Herri kirolelan jarduteko berbak pertsona izan bihar da. Gaur egun ez dago gaztien berbiaz fidatzerik; parrandia dala edo azterketak edo lagunak dirala, entrenamenduak baztertzeko prest dare. Arduria hartzia bihar dabe.

Apostua egin dozue San Andresko jaixetarako: ze lan egin bihar dozue?

Ehun mozketa zeinek lehenago egin dago jokuan. Halako apustuak itzelak dira, apustuak ipintzen dabe saltsia herri kirolelan eta horrek mantentzen dittu bizi!

"Apustuak ipintzen dabe saltsia herri kirolelan eta horrek mantentzen dittu bizirik"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altxariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Zaintza emakumeen ardura da oraindik

“Zaintzaileak eta zainduak Soraluzen: Gertuko errealitatea” izenburupean bertako familiek beregain hartutako lan kargaren ikuspuntu orokor bat lortzeko diagnostia burutu du Daiteke gizarte aholkularitzak. Elkarrizketak egin zaizkie zaintzaileei eta gurasoei eta bi eztabaida talde sortu dira umeen zaintza eta autonomia falta dutenena aztertzeko.



Ondorioen aurkezpeneko irudia.

Eszedentzia, andren kontua

Umeen zaintzan, galdetegia erantzun dutenen %87 emakumeak izan dira eta etxekolanetan denbora gehiagoz aritzen dira eta lanaldiaren murrizketen %83 andrekin hartzen dituzte. Gehienek zaintzak kostu pertsonala duela adierazi dute. Autonomia falta dutenen zaintzen gaineko elkarrizketak 10 zaintzaileekin egin dituzte (%90 emakumeak). Kasuen %67an zaintzailea zainduarekin batera bizi da eta, ia beti, zuzeneko senidea da. Osasun fisiko zein psikikoan eragiteaz gain, isolamendu soziala eragiten duela aitortu dute.

Gizonak, eremu publikoan

Ondorioztatu dute, zaintzailea oraindik emakumea dela eta haurren zaintzan gizonak hasi badira ere, adinekoenean oraindik gutxi direla eta eremu publikoan gehiago ibiltzen direla. Gizarte langileen lana eta etxeko etxeko arreta zerbitzua, ludoteka edo eta Kukumixo oso positiboki baloratu dute eta eztabaidarako gunea sortu izana eskertu.

Bizikalek zozketa jarri du martxan

Bizikale merkatarik elkartek otar erraldoia zozketatuko du uztailaren 13an Plaza Barrixan. Errifak elkarteko dendetan erosten eskuratu daitezke. Otarrak, besteak beste ardo eta likore botilak, kontserba latak, izarak, gozoak eta hainbat etxetresna elektriko daromatza. Zozketa honekin herritarrak herrian erostera animatu nahi dituzte.



110 ume aisialdiaz gozatuko prest

Udaleku irekiak indarberrituta datoz aurten gurera. 110 umek hamar egunez modu dibertigarrian aisialdiaz gozatuko dute Kukumixoko begiraleekin, Txindoki, Aulesti, Hondarribia edota Pagoeta bisitatuz. Jolas eta tailerren bitartez euskara, kulturartekotasuna, sormena eta komunikazioa landuko dituzte.

Ibiltariak martxa hartuta

“Kosta ala kosta” udaleku ibiltaria atzo jarri zen martxan. Guztira hogeita bi gaztek eman dute izena eta Otaza izan dute abiapuntu. Datozen egunetan Degurixatik Gatzagara egingo dute eta handik Bergarara. Elosutik pasatu ostean Soraluzera sartu eta Mendizabal baserrian pasatuko dute gaua. Zarautzen bukatuko dute ibilbidea.



Sexu askatasuna aldarri

Plaza Barrixa sexualitate eredu askeen aldarri bilakatu zen ekainaren 28an. Komite Arroxak deiturik elkarretaratzerara egin zen eta “zine-forum” ekimenaren aurkezpena egin zuten. Hilaro gay, lesbiana edo transexualen filmak botako dituzte Zinean, ikusgarritasunean eragiteko helburuarekin.





MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRAK ASKO PLAZENTZIATARRAI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

IT txartela KZgunean eskuragarri

Teknologia berrien ezagutza ziurtatzen duen zigilua lortzeko IT txartelaren azterketa egunak hilaren 11n, 19an eta 23an dira. Sare sozialak ezagutzeko ikastaroa ere eskainiko dute bertan. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago 943 02 36 79 telefonoan edo tutor.soraluze@kzgunea.net helbidean.

Egoitzakoak bidaiari

Mesedeetako Amaren Egoitzakoek Loiolako Santutegia eta San Inazio Loiolakoaren etxea bisitatu zituzten aurreko astean. Uztailaren 18an Debara irteera egingo dute Gurutze Gorriko boluntarioekin, hondartzara inguruan paseoan ibili eta meriendaren ostean, nahi duenak bainua hartzeko aukera izango du.



Dolmenen ibilbidea egiteko aukera

Debegasak Karakate-Irukurutzetamendilerroan dauden dolmen, tumulu eta trikuharriak ezagutzeko beste irteera bat antolatu du domekarako. Euskal artzainen eta nomaden aztarnak jarraitzeko aukera izango da et tarteetan inguruko baserrietako gazta eta sagardoa dastatuko dute. Irteera goizeko 10:00etarako zehaztu dute Karakateko aparkalekuan. Nagusiek 9 euro ordaindu beharko dituzte, 12 urtetik beherakoek 5 euro.



Herritarrak antolatzaile eta parte Santiago – Santa Ana jaietan

Antolakuntza lanetan dihardute Udaleko Jai Batzordea, Galtzagorriak, Gaztetxea, Herri- mugimendua... Hilaren 25ean hasiko dira jaiak; suziriak eta Tere Sousak eta Jokin Oregik prestatutako pregoiak hasiera emango die lau egunez luzatuko diren ospakizunei. Egitarau herrikoi eta parte hartzailea prestatzea izan du Udaleko Jai Batzordeak helburu eta herriko gainontzeko elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzeak izugarritzko indarra eman diela aipatu dute.

Herritarren inplikazio bila

Aurrekontua izugarri murriztu izanak, (9.000 euro gutxiago aurten) ekitaldi herrikoiak ugaritu ditu. Danborradak, olibahezurren jaurtiketa, Nafarroako musika-ikuskizuna (herritarren eskutik), umeentzat bolo txapelketa, kirol lehiaketak... Herritarrak festa giroan sartzeko moduko egitaraua osatu nahi izan dute, “ikusle moduan baino antolatzaile edo laguntzaile lanak egiten gozatzen

dabelako, bere sentitzen dittue eta horrek egitten dau jaixak borobilak izatia”.

Mugittu Gherrixan izen ematea zabalik dago

Aurten Herrira mugimendua eta Gaztetxea ere animatu dira Galtzagorriekin batera ekimen musikal honetako antolatzaile lanak egitera. Uztailaren 27an izango da jaia eta iaz moduan musikan murgilduta dabilatzanei taulagainera igotzeko aukera eskaini nahi diete. Izen ematea uztailaren 11 baino lehen egin behar da mugitxugherrixa@gmail.com helbidean.

Herrira mugimendua txosnarako laguntzaile bila

Euskalpresopolitiko eta iheslarien aldeko Herrira mugimendua antolatuko duen txosna montatzeko, desmontatzeko edota lanean jarduteko prest dauden herritarrak soraluzekoherrira@gmail.com helbidean edo hilaren 9an 19:00etan Pil-pileanean egingo duten bileran eman dezakete izena.

Udaleko Jai Batzordeko kideetako batzuk.



Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Bi paretak joz, guneak irabazi

Torturaren aurkako Emakumeen Pala Txapelketak bere zazpigarren edizioa bete du aurten. Maiatzean hasi zituzten kanporaketak 32 emakumek, bikoteka eta bihar izango da final haundia San Andresen.

Gizarte honetan emakumeenganako dagoen zapalkuntza estrukturalari eta arlo guztietan jasaten duen inbisibilitatean eragiteko beharrez sortu zen Emakumeen Pala Txapelketa 2.003an.

Ezin ahaztu emakumeengan kirola sustatzeak duen garrantzia, kirolerako afizioa orokorrean haundia bada ere, emakumeen artean ez duelako horrenbesteko indarrik: *“Horregaittik ikusi genduan gune bat sortzeko biharra. Gaur egun kirol inguruan hedatutako kultureak ez dabelako emakumiondako kirol mota eta egitura egokirik eskaintzen.”*

Jakina denez, torturen salaketa izan du ardatzeko bat: *“Emakumiok jasaten ditudun torturak bestelako ezau-garritasun bat be badauke eta hori azaleratu nahi izan dogu modu honetan”* azaldu dute antolatzaileek.

Bere lekua irabazi duen ekimena

Hasieratik harrera oso ona izan du txapelketak, jendeak bere egin du eta “finkatu” egin da. Zorionez, urtero partehartzaile berriak hurreratzen dira euren lemetako batek dioten moduan emakumeak kirolera hurbilduz tortura txokora bidaltzeko.

Urte hauetan ikusi dute emakumeek kirola modu desberdinean bizi dutela: *“Kirola egittiari gizonezkuak baino lehenago lagatzen dotsagu eta ez da kasulitate bat. Jendarte patriarkal honek, kirolak daukan antolaketa tradizionalak horretara ekarri gaitu. Eredu tradizionalak bultzatzen ditudan lehiakortasun eta irudixan gainetik bestelako balore batzuk bultzatu nahi ditudugu; harremanak, osasuna...”*

Denaren gainetik garrantzitsuena, emakumea bereak izan ez diren gune horien parte izaten ari dela da.

Arratsaldeko 19.00etan ekingo diote final haundiari

Finala: Amaia Ariznabarreta - Daiana Rico eta Lorea de Castro - Ainara Muga

3. eta 4. postuak: Alana Berraondo - Idoia Belar eta Onintza Narbaiza - Nere Aranberri



“Elbarrittasunak ez zaittu mugatu bihar kirola egitteko”

Edurne Unamuno Aranburuk (Soraluze 1978), egokitutako gomazko paletan jokatzeko du. Aldizkari honi kontatu dionez modalitate honetan ere, emakumeak gutxiengoa dira. Bihar beste hainbat lagunekin batera erakustaldia eskainiko du San Andresko frontoian, Pala Txapelketaren ostean.

Pala erakustaldia emongo dozu zapatuan San Andresen. Nundik sortu da ideia?

Ni be palan ibiltzen naizenez, gurpildun aulkixan palan jokatzeko dogunon artian erakustaldi hori egittia bururatu jakun. Sei bat lagunengatik artian pare bat partidu jokatu dugu.

Zela hasi zinan palan jokatzeko?

Egunkarixan irakurritza jakin neban Zubietan pare bat lagun elkartzeko zira palan jokatzeko. Harrituta geratu nintzan: palan be jolastu leike gurpildun aulkixan? Beti gustatu izan jata zeozetan jardutia eta animatu egin nintzan. Poliki-poliki jende gehiago animatu da, oin zortzi bat batzen gara, eta ni neska bakarra.

Hortan be neskak atzetik...

Neskak ez gara hainbeste animatzen eta bestalde, gitxiago ikustarazten da gure kirola. Beti egoten naiz ia neskaren bat azalduko dan zain, baina oingoz ez...

Izando zu erreferenterik edo autoikasketa izan da?

Momentuan martitzenero entrentzen dogu bi entrentzailekin. Berotzeko jokuak egiten dugu, jokaldixak landu eta bukatzeko partiduak jokatu. Frontoian sekula ibili barik nenguanez palia manejatzea egin jata zailena. Askotan pelotetara heltzea be gaitza izaten da.

Zelako aulkixak erabiltzen ditzuzue kirola egitteko?

Normalian kirola egitteko aulkixak gurpilak etzanda eukitzen ditzue giruak errezagotzeko eta askoz arinagoak dira. Atzian errobera txiki bat eukitzen dabe mugimenduekin aulkixa ez dedin irauli.

“Kirola egitteko dirutzia balixo daben materixala bihar dozu”

“Ia datorren urterako emakume gehiago gerturatzen dan”

Eta ze egokitzapen egiten dira palan jokatzeko?

Pala arinagua eta bote gutxiagoko gomazko pelotia darabilgu, ze bote haundixakin gainetik pasatu ahal jaku eta ez dosku joku polittik emoten. Bi botetara jokatzeko dogu jokaldixetara heltzeko astiza eukitzeko. Gainontzeko arau danak berdinak dira.

Zela dauka aulkixan dabilenak kirola egitteko?

Ez da zuen moduan, pala bat hartu eta frontoira juatia. Edozein kirol egitteko kriston dirutzia balixo daben materixala bihar dozu, 3.000 eurotik gora. Guk suertia daukagu Gipuzkoako Federazio egokittuan bittartez diru laguntzak eskuratu eta aulkixak erosi ahal izan ditzugulako. Eskerrak horri.

Partidu ofizialik egiten da Euskal Herrian?

Oin lau urte Usurbilgo entrentzaileetako bat pala jokuan egokitzapena aztertzen hasi zan eta federazinuakin alkarlanian arautu egin zebe. Iaz, Gipuzkoako leengo pala txapelketia antolatu zan.

Zerk emoten dotsu plazer haundixena?

Hasteko, nahiz eta elbarrittasuna euki kirola egin ahal dozula ikustiak, ondo pasatu ahal dozula ikustiak. Talde kirola izatian, jendiakin jokatzia gauza politta da, tanto onak egittia be bai, baina teknikia eta indarra bihar ditzuzu.

Eredu izan zeinkela iruditzen jatzu, mugikortasun urriko jendiandako eta bereziki neskendako?

Azken finian holako ekimenekin nahiz eta elbarrittasuna euki posible dala gauzak egittia gizarteratzen dozu, beste modu batera, baina posible dala. Elbarrittasunak ez zaittu mugatu bihar. Bakoitzak bere mugak eta bere aukerak daukaz, eta norberan aukeren artian jardun bihar dau. Batak egokitzapen haundixagua biharko dau eta bestiak txiki-xagua, baina hori ez da muga izan bihar kirol bat egin edo bizitzako edozer egitteko.

Ze urrats dare emoteko?

Bisibilizatzea. Komunikabidiak badauke garrantzia, eta ez gaitzatela beti laga azkenengo txokuan ze azkenian honetan be beti berdineri emoten dotse lehenasuna.

Politta litzake datorren urtian San Andresen emakumiendako egokitutako pala txapelketia antolatzea!

Ba ideia ona da bai, baina ia zela lortzen dozun! Nik ez dot beste neskarik ezagutzen eta! Ia datorren urterako emakume gehiago gerturatzen dan.




ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Zinema Arroxa deituriko zine zikloa antolatu du Komite Arroxak. Urte guztian zehar gay, lesbiana, transgenero eta bisexualen tematika landuko duten pelikulak eskainiko dituzte. Guneak eta topalekuak sortzeaz gain, sexualitate aukera denak askatasunez bizitzea posible egitea du helburuetako bat.

Gure herrixan sexu aukera denak askatasunez bizi leikez?

AINHOA VELAZQUEZ


Oso ondo, oso positibua irizten jata zine zikluana. Argi dago kalian ondio ez dirala aske eta modu honetan behintzat gure umieri eta etorkizuneko belaundaldixeri ikustarazi ahalko dotsegu aukera denak zilegi dirala.

ANA ROLO


Erabat ados nago holako ekimenekin, HIESAN kontrako egunakin moduan ez dedin egun horretara bakarrik mugatu. Homofobia nazkagarria da eta horregaitik asko poztzen naiz ekimen honekin. Bazan ordua holakuak antolatzeke.

IÑIGO MENDIA


Guniak sortzia garrantzitsua irizten jata. Soraluzen, kalian, ez dakit sexualitate denak askiak diran, nere aurrian behintzat izan leikez. Txutxumutxuak gero, herri honetan batian eta bestian beti entzungo dira!

METE AREVALO


Nik uste Placentxiako gay-xak beldur dirala, bestiak beste, kritikatuak izatiaz. Hemen halakotxiak gara, danan gainian berba egin bihar. Horregaitik zine-ziklo hau herrixandako orokorrian oso interesgarria irizten jata, gay diranendako eta ez diranendako.

Eman zure iritzia sarean



Desing
Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

MABE
ILEA PAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, beheko
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Carlos de Cosen argazkiekin erakusketa ikusgai

Kontrargik antolatuta, Carlosen argazkiak ikusgai izango dira astelehenetik aurrera kiroldegiko erakusketa gelan. (Ordutegia azpian)

**Beretxinaga buruz burukoan**

Eneko Beretxinaga eta bere bikote Eneko Olaizola Plazatik Gaztetxera txapelketako finalean buruz burukoan lehiatu ziren. Epai-lek baina Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitia izendatu zituzten irabazle.



ZZ Blues Band eta Laket taldeak arituko dira San Andresen

Bihar eguerdiko 13:00etan Egingo den kanpai bueltarekin ekingo diote San Andrestarrek auzoko jaiak ospatzeari. Tradizioa eta beritasun nabarmenak batuta gustu guztietarako ekitaldiak batuko ditu. Kirola, musika eta jan-edanik ez da faltako.



Umeentzako bereziki zenentxoak, poniak eta jolasak egongo dira.

Egitaraua:**Uztailak 7, zapatua GAZTE EGUNA**

13:00etan jaiei hasiera emateko **KANPAI BUELTA**
18:00etan Herri kirol **DESAFIOA**
19:00etan Emakumeen pala txapelketako **FINALA**
21:00etan **HERRI AFARIA**
23:30ean **ZZ Blues Band** taldearen **KONTZERTUA** eta **Laket** taldearen **ERROMERIA**
Atsedendian, txerri-harrapatzea eta txokolate-jana

Uztailak 8, domeka JAI EGUNA

10:00etan Iñaki Ruizzen Omenezko I. **MENDI LASTERKETA**
12:30ean **MEZA**
13:00etan **MOTOZERRA APUSTUA**: Arizaga – Arana
Mendotz eta Bizkai **TRIKITILARIAK** eta
Amaia Agirre eta Onintza Enbeita **BERTSOLARIAK**

13:45ean Mendi lasterketako **SARI BANAKETA**

14:30ean **BAZKARIA** bertsolariekin
18:00ean III. San Andresko **HARRIA TXAPELKETA**
19:00etan Bergarako **ZEZENTXOAK** eta **PONIAK**
19:00etan **BOLA-TXAPELKETA**

Uztailak 9, astelehena AUZOKOEN EGUNA

12:30ean **MEZA**
13:00etan Haurrentzako **JOLASAK**
13:30ean Emakumeen **BOLA JOKUA**
14:30ean **BAZKARIA** frontoian
Bazkalostean **LIZASO** eta **EGAÑA** bertsolarien saioa eta
LAJA eta **LUTXURDINOREKIN** erromeria
18:30ean Emakumeen **BOLA SARIA**

Kultur ekitaldien agenda**Uztailaren 7tik 9ra****SAN ANDRES AUZOKO JAIK**

Ant: San Andres auzoko jai batzordea

Uztailaren 9tik 21era**ARGAZKI ERAKUSKETA**

Carlos de Cos-en argazkiak
Astegunetan: 19:00etatik 20:30era
Zapatuetan: 12:00etatik 13:30era

Ant: Kontrargi Argazki Kolektiboa

Uztailaren 13an, barixakua DOKUMENTALA

"Gazta zati bat" (Zuz: Jon Maia)
22:15ean, Zinean

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Suak eta sorginek argitu zuten gaua

Ekainaren 23ko gauean lagun ugari batu ziren Pil-pileanek, Urrats Dantza Taldeak eta Txistulari taldeak piztutako su ederraren bueltan. Iluntasunak, suak eta sorginek gaua magiko egin zuten. Ausartenek suaren gainetik salto ere egin zuten.



MARI MAR HARATEGIA

Curean Euskal Herriko produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

ARMENDIA JATETXEA

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA TRADIZIONALA

Bederatzi soraluzetar Quebrantahuesos frogan

Aurtengo edizioko lehen kilometroetako irudi bat.



Iturria: www.quebrantahuesos.com

7. 293 lagunek hartu zuten parte Sabiñanigon hasi eta bukatzen den Quebrantahuesos txirrindularitza frogan, tartean bederatzi herritarrek. Lasterketak 202 kilometroko luzera du eta Somport, Marie Blanque, Porlanet, eta Hoz-eko mendateak igarota helmugara heltzen soraluzetarrik bizkorrena Urko Azkorbebeitia izan zen, 652. postuan.

Herritarren denborak:

652. Urko Azkorbebeitia	6:32:46	4031. Jon Oregi	7:58:15
656. Koldo Azkorbebeitia	6:32:48	4631. Dani Fulgencio	8:15:54
1036. Gaizka Larrañaga	6:45:29	5448. Jon Zabala	8:44:53
1357. Jon Arrieta	6:53:02	6760. Xabier Iñurrieta	9:52:19
3515. Ximun Larrañaga	7:46:01		

Mendi taldekoek Errioxa bisitatu dute

Asteburu pasa egiteko asmoz herriko ehun eta hogeita hamabost mendizalek ekainaren 23ko goizean Errioxara bidea hartu zuten. Lugar del Rion egin zuten lehen geldialdia eta bertatik Ezkarayrainoko ibilbidea oi-

nez egitera trebatu ziren. Oinak lehertuta deskantsua Molino Viejo aterpetxean hartu zuten. San Lorenzo mendia bisitatu izan dute udako oporren aurretik egindako mendi irteeren egutegia.

Frontenis txapelketan izen ematea zabalik

Uztailaren 14an eta 15ean 16 urtetik goragokoen banakako frontenis txapelketa jokatu da institutuko frontoian. Parte hartzaileek penn urdina pilotatu mota erabili beharko dute eta

gehienez hogeita lau lehiakidek eman ahalko dute izena, uztailaren 12a baino lehen 665 480 765 (Gorka) edo 669 208 569 (Jokin) telefonoetara deituta.

Patinajea eta waterpolo aisialdirako



Herriko gazteenen oporraldia dibertigarri bihurtzeko asmoz udaleko kirol sailak "uda kirola" programa jarri du martxan. Egitasmo honetan parte hartzen duten berrogeita hamar umek bi kirol jarduera uztartzen dihardute: patinajea eta waterpolo. Lehen asteak errobera gainean eman dituzte eta datorren astean waterpoloan trebatuko dira.

EMAITZAK

PELOTA

Berasaluze VIII – Beroiz	22
Xala – Laskurain	10
Titin III – Merino II	16
Xala – Laskurain	22

FUTBITO TXAPELKETA

Malas Hierbas – Kastakuak	4-6
Grindel – Costo de Marfil	1-16
Emoixok Lasku – Hala dok ala?	3-6
Sahhara – Eusko Label	2-15
Fronton Team – Artifices	0-3
Karril Ori – Gaztetxea	16-9
Malas Hierbas – Hala dok ala?	9-5
Grindel – Eusko Label	3-9
Artifices – Kastakuak	4-4
Gaztetxea – Costo de Marfil	4-8
Emoixok Lasku – RKC United	7-11
Sahhara – Supertorpedos	3-7

AGENDA

PELOTA

Zapatua 7, 22:15ean Labriten
Arretxe II – Beroiz
Idoate – Laskurain

Barixakua 13, 22:15ean Labriten
Gonzalez – Laskurain
Berasaluze VIII – Beroiz

FUTBITO TXAPELKETA

Zapatua 7, final laurdenak
10:00etan Malas Hierbas – Costo de Marfil
11:15ean Artifices – Eusko Label
10:00etan Kastakuak – Karril Ori
11:15ean Fonton Team – Super Torpedos

PALA TXAPELKETA

3. eta 4. postuak eta finala
Zapatua 7, 19:00etan San Andresen
Amaia Ariznabarreta – Daiana Rico
Lorea de Castro – Ainara Muga
Alana Berraondo – Idoia Belar
Onintza Narbaiza – Nerea Aranberri



ZORION AGURRAK



Antxon Zubiaurre
Uztailan 8xan 8 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat, etxeko danon partez!



Izaro Rodriguez
Uztailan 23an urtebete!!
Zorionak etxekuen partez,
asko maitte zaittugu printzesa!



Lide Sudupe
Uztailan 1ian 2 urte!
Zorionak polittori eta
muxu pila etxekuen partez!



Sergio Montes
Uztailan 9xan 10 urte!
Zorionak mutil haundi eta
muxu erraldoi bat etxekuen
partez!



Fernan Oregi eta Xiker Garro
Uztailan 2xan eta 15ian
urtiak bete dittuzuelako,
besarkada haundi bat
gure pareja magikuantzat!



Eneko Rz. De Luzuriaga
Zorionak maittia eta muxu
asko, amatxo, aitatxo, tia Isa
eta Landeren partez!



**Ongi etorri Xabat eta
zorionak Ane!**
Pila-pilaaaa maitte zaittuegula
esateko inoiz ez da berandu! Muxu
bero asko Pil-eko lagun partez!



Jon Caballero Uztailan 15ian 8 urte
Joseba Mendizabal Uztailan 7xan 15 urte
Zorionak eta muxu haundi bat etxeko danon
partez, bereziki Nagore eta Bidanen partez!



Maren, Miren eta Nora
Ekainan 27xan, uztailan 10ian eta 14an
urtiak betetzen dittuzuelako,
zorionak hiruroi eta hiru milioi patxo
aitxitxa eta amaman partez!

jaiotakoak

AICHA EL HILALI



hildakoak

JESUS LOPEZ DE LA CALLE BARRASA
CARMEN DOMINGUEZ JORNA



LEHIAKETA

► **Zein ageri
da argazki
honetan?**

► **Saria:** Kike Amonarrizen
txiste liburua.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Alberto Losada

► **Naiara Kortaberria**, dantza taldeko
irakaslia da aurreko aleko argazkixan
agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.
Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: M^a Asun Bandaormaetxea


LABADERUA GABOLATSEN

Erretratu hau 1942. urtekua da eta Gabolats kaleko itturrixan jasota dago. Sasoi haretan asko ziran erropia garbitzera bertara juaten ziran emakumiak, labadero moduan erabiltzen zebe askok. Argazkiko emakume eder honek 85 urte sasoi betian bete dittue aurten eta gaztiak ziranian, 14 urte ingurukin, etxeko lanak egin eta etxekueri laguntzen fin-fin jarduten zebela dauke akorduan. Labaderora juatia herriko beste emakumiekin topatzeko eta harremanak lantzeko modua be bazala aittatu dabe.

Argazkixan, ezkerretik eskumara:

Goixan: Maribel Sebal eta Arantza Larrañaga.

Behian: Maria Luisa Camino eta Mariasun Bandaormaetxea.



SAN ANDRESKO JAIAK 2012

Herri-kirolak
San Andres vs Ezosi
Uztailak 7, zapatua
17:30ean

Motozerra apustua
Aritza vs Arana
Uztailak 8, domeka
17:00ean

iratzxo

gozodenda

**Eguneroko prentsa eta
aldizkari aukera zabala**

Udako ordutegia


06:00-13:30

18:00-20:30

Asteburuetan goizez bakarrik

IÑAKI RUIZ

LASTERKETA



UZTAILAK 8
GOIZEKO 9:30ean
SAN ANDRES auzoa

** Inskripzioa duan eta
irteeran izango da*



SORALUCE 50 años

SORALUZECO MENDI TALDEA